

OSOGUNEKO ERAKASKERA

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA.

1994-95.

1. Zoin dira hizkuntza itzaliak?
2. Campionen liburuaren ithurburuak zoin dira?
3. Campioneak adin handia beldu dira?

II ARTHUR CAMPION 2.

Celtas, iberos y eúscaros deitzen da liburu hau.

Lan gaitz hori idazteko behar izan ditu yakhin zortzi edo hamar hitzkuntza zaharrak, urruneko mendeetan itzaliak direnak; sánscripto, copto, ibero, celta, aquitano, etrusco eta holako bertze: Greco eta latinez bertzalde.

Eta lan horiek oro eskuararen eta eskuaidunen ithurburuak yakinarazteko.

Hortik asmatzen ahal duzie, irakhurleak, nolako buria duen, ze adimendu gaitza alhatzen duen barnian.

Ba eta bihotza ere hein ber-berekoa du, sekhula itzaltzen ahal den gar batekin, eta handik atheratzen diren argiak eta phindarrak Eskualherriaren amodioaren gatik hedatzen ditu, bere erakaspenean dohainak emaiten dauzku.

Harrigarri da Kanpion-ek agertarazi dituen paper zaharrak. Cámara de Comptos eta Archivo de Navarra-ko liburutegietan ikherkhin nahiaren gosea asetzeko, eta Nafarta- [...], sekhula kordokatu gabe, mia eta mia, bere yakhin nahiaren

gosea asetzeko, eta Nafartarrerri yakinarazteko liburu Euskarianas ederrekin zer ginen aitzineko mendeetan.

Paper horietan, milazka ikhertuak, badira erakusten dauzkutenak egunez-egun erregeren eta Nafarroako erresuren xahutzeen xeheetasunak. Guduen gostatzeak, yauregi eta gatzeluen antolamenduak edo eraikitzeak, bizigailuen saineurriak, othuruntzetako konduak, langileen eta sehien alokairuak, gaixtakinien salatarien sariak... Hots, denbora hetako xahubide eta gerthakari larri ala xeheak tiletez-tilet emanak, eta ezagutarazten dauzkutenak orduko bizitzea argitasun haundiarekin.

Eta Kanpion hain da gizon langilea, nun adin haundian izanikan ere, dremendenik ez da etsitzen, ez enheatzen, ez eta akhitzen ere; aitzitik, goxotasunian ari da, eta ariko azken hatsaren tenorearaino, bururik altxatu gabe, gazterien khar berarekin.

Maxim Hand  
1926

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Emaiten dauzku 32 Asma dezakezue
- 33 Asma dezaguzket 34 Nik zaituztet, Nizuruztet

31 UKAN - Conj. à dble Cplt. Indic. Present.

Obj. Pluriel - Compl. indir. Pluriel  
Guri (à nous)

- Zuk dauzkieguzue = vous nous les avez
- Harek dauzkiegu (dauzku) = il nous les a
- Zuek dauzkieguzue = vous nous les avez
- Heiek dauzkiegute (dauzket) = ils nous les ont

Obj. Sing. - Complément Indirect. Pluriel.

- Zuk daukuzu = vous nous l'avez
- Harek dauku = il nous l'a
- Zuek daukuzue = vous nous l'avez
- Heiek daukute = ils nous l'ont

32 UKAN = Potentiel Present. Objet sing.

- Nik ukan dezaket = Je peux l'avoir
- Hik " dezakekin = Tu peux l'avoir
- Zuk " dezakezu = Vs pouvez l'avoir
- Harek " dezake =
- Guk " dezakegu =
- Zuek " dezakezue =
- Heiek " dezaketete = Ils peuvent l'avoir.

33 Conj. à dble cplt. Obj. sing. - Cplt. Ind. Plu.

Zueri = à vous

- Nik ukan dezakeket = je peux vous l'avoir
- Harek " dezakeke = il peut vous l'avoir
- Guk " dezakekegu = nous pouvons vous l'avoir
- Heiek " dezakeketete = ils peuvent vous l'avoir
- Nik eman dezakeket = je peux vous le donner